1.1 ATLETISMO-KLUBA

ATLETISMO-KLUBA

Atletismo-klubean badakite atletismo egitea oso jarduera onuragarria dela.

Gainera, arduratsua izaten eta lagunak egiten laguntzen du.

01 Klubeko zuzendariak ondoko taula egin du, neskak eta mutilak adinaren arabera banatzeko:

	7 urte	8 urte	9 urte	10 urte	11 urte	12 urte
Mutilak	23	23	23	20	15	13
Neskak	25	23	21	24	17	17

Zenbat neska gehiago dago atletismo-klubean mutilak baino?

A. 7
B. 8
C. 9
D. 10

02

Klubeko 10 urte dituzten 24 neskei inkesta bat egin zaie, zein atletismo-modalitate gustatzen zaien gehien jakiteko. Erantzunak hauek izan dira:

- Erdiak altuera-jauzia aukeratu du.
- 7k luzera-jauzia aukeratu dute.
- Gainerakoek oztopo-lasterketa aukeratu dute.

Zenbat 10 urteko neskek aukeratu dute oztopo-lasterketa?

Erantzuna: ☐ neskak.

03

Klubeko 244 kideak atletismo-lehiaketa bat ikustera joan dira. Bakoitzak autobuserako 5€ eta estadioan sartzeko 3€ eman dizkio klubari. Estadiora heltzerakoan, sarrerak 2€ balio duela konturatu dira.

Zenbat diru ordaindu du klubak guztira irteeragatik?

Emaitza: ☐ €